PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, ETORKIZUNA ERAIKIZ EREDUAREN KOMUNIKAZIO DIGITALAREN ETA SAREEN AHOLKULARITZA ZERBITZUAK ADJUDIKATZEKO.

I.- Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa da legegintzaldiko gobernu-ekintzan lidergoa izateko tresna nagusia. Bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikuspegia bilatzen duten helburu estrategikoak eta ekintza-ildoak jasotzen dira: komunitate arduratsu, orekatu eta bidezkoa izatea, ekonomia lehiakor, berritzaile eta jasangarriarekin, pertsona guztien ongizate integrala zaintzen duena eta etorkizuneko proiektu oso eta zentzudunak garatzeko aukerak sortzen dituena.

Planak erantzukizun publikoa, hurbiltasuna eta lankidetza gauzatzeko moduen funtsezko ezaugarri gisa ezartzen ditu. Ildo horretan, Etorkizuna Eraikiz ekimena Gipuzkoan azaleratzen ari diren erronkei eta beharrei erantzuteko apustu nagusitzat hartzen du, baita lurraldearen etorkizuna modu partekatuan eraikitzeko eta herritarrekin elkarrizketa-mekanismoak gaitzeko ere.

Zazpi urte igaro dira abian jarri zenetik, eta, denbora honetan, Etorkizuna Eraikiz gobernantza ireki eta kooperatiboa ulertzeko eta aplikatzeko modurik onena bihurtu da, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu nahi duena "politika egiteko" modu berri bat aplikatzerakoan. Gobernantza-modu hori guztiz bat dator "Gipuzkoa ereduarekin". Azken urteotan, eredu horretan lan egin da, eta hori indartzeko erronka 2023-2027 aldirako Plan Estrategikoa izan da. Horretarako, Planak jasotzen du Gipuzkoako garapen ekonomiko eta sozialaren eredua denboran zehar eraiki dela, lidergo-gaitasunean, bizitasunean eta Gipuzkoako gizartearen lankidetzarako prestasunean oinarrituta.

Etorkizuna Eraikiz programaren helburua da Gipuzkoako lurraldearen etorkizuneko erronkak kolektiboki detektatzea, erronka horiei aurre egiteko modua diseinatzea, erantzun posibleak ingurune errealetan esperimentatzea hainbat eragileren laguntzarekin eta emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan aplikatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duen hausnarketa estrategikoak hipotesi konformista saihestu nahi du etorkizunari aurre egiterakoan, eta proposatzen du jarrera proaktibo batetik Gipuzkoak bere etorkizunari heltzeko baldintza onenak sortzea. Hori guztia, Gipuzkoako gizarteak egiten dituen aldaketek epe ertain eta luzerako eredu sozial eta ekonomikoaren oinarriak ezarriko dituztela jakinda. Aldi berean, Foru Aldundiak

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DE LOS SERVICIOS DE CONSULTORÍA DE COMUNICACIÓN DIGITAL Y DE REDES DEL MODELO ETORKIZUNA ERAIKIZ.

I.- Introducción

El Plan Estratégico 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa es el principal instrumento para el liderazgo en la acción de gobierno de la legislatura. En él se recogen los objetivos estratégicos y las líneas de acción que persiguen la visión de la Diputación Foral de Gipuzkoa: ser una comunidad responsable, equilibrada y justa, con una economía competitiva, innovadora y sostenible que cuida del bienestar integral de todas las personas y genera oportunidades para el desarrollo de proyectos de futuro plenos y con sentido.

El plan establece como rasgos fundamentales de las formas de ejercer la responsabilidad pública, la cercanía y la colaboración. En ese sentido, reconoce a la iniciativa Etorkizuna Eraikiz como una de sus principales apuestas para responder a los retos y necesidades emergentes de Gipuzkoa, así como para abordar la construcción compartida del futuro del territorio y habilitar mecanismos de diálogo con la ciudadanía.

Han pasado siete años desde su puesta en marcha y, durante este tiempo, Etorkizuna Eraikiz ha pasado a erigirse en la mejor manera de entender y aplicar la gobernanza abierta y cooperativa, que la Diputación Foral de Gipuzkoa quiere impulsar a la hora de aplicar una nueva forma de "hacer política". Este modo de gobernanza es plenamente coincidente con "el modelo Gipuzkoa", en el que se ha venido trabajando en los últimos años y cuyo fortalecimiento se ha marcado como reto el Plan Estratégico 2023-2027. A tal efecto, el Plan recoge que el modelo de desarrollo económico y social de Gipuzkoa se ha construido a lo largo del tiempo fundamentándose en la capacidad de liderazgo, la vitalidad y la disposición a la cooperación de la sociedad guipuzcoana.

El propósito de Etorkizuna Eraikiz es detectar colectivamente los retos futuros del territorio de Gipuzkoa, diseñar la manera de afrontarlos, experimentar posibles respuestas en entornos reales con la colaboración de distintos agentes y aplicar los resultados a las políticas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La reflexión estratégica que impulsa la Diputación Foral de Gipuzkoa quiere evitar una hipótesis conformista a la hora de afrontar el futuro y propone que desde una actitud proactiva Gipuzkoa cree las mejores condiciones para abordar su futuro. Todo ello siendo conscientes de que los cambios que afronta la sociedad guipuzcoana van a sentar las bases del modelo social y económico a medio y largo plazo. Al mismo tiempo, la

Gipuzkoaren ezaugarri diren lehiakortasunaren, sormenaren, erakarpenaren, gizarte-kohesioaren eta lurralde-orekaren ezaugarriak indartu nahi ditu.

Diputación Foral se propone reforzar las señas de competitividad, creatividad, atracción, cohesión social y equilibrio territorial que caracterizan a Gipuzkoa.

Ziurrenik, gizarteek ez dute beste inoiz sentitu aldatzeko presioa orain bezala, berehala eta egunero. Aldaketaren logikan murgilduta bizi gara eta, gainera, abiadura handiz gertatzen dira aldaketak, modu askotan agertzen zaizkigu, eta pertsonengan nahiz erakundeetan ikus daitezke horien eraginak.

Es muy posible que, nunca como ahora, las sociedades hayan sentido la presión del cambio de una manera tan inmediata y cotidiana. No solo estamos inmersos en la lógica del cambio sino que además éste se produce a gran velocidad, y se manifiesta de muchas maneras, y sus impactos se aprecian en las personas y en las organizaciones.

Aldaketaren inpaktuak gogotik agertzen dira herritarrek ekonomia, hezkuntza, politika eta bestelako hainbat esparru ulertzeko, sinesteko, sentitzeko eta praktikatzeko duten moduan. Arian-arian, aldaketaren nonahikotasun horrek behin-behinekotasun eta ziurgabetasun sentsazio kezkagarria sortzen du etorkizunari dagokionez. Etorkizuna kezka da, ezezaguna da. Ez dirudi errealitate aldakor hori jarrera pasibo batez har dezakegunik, ikusle soilak izanik.

Los impactos del cambio se manifiestan con todo rigor en la manera en que las personas perciben, creen, sienten y practican la economía, la educación, la política y otras muchas actividades. Esta omnipresencia del cambio va creando una inquietante sensación de provisionalidad e incertidumbre con respecto al futuro. El futuro como preocupación, como incógnita. No parece que podamos convivir con esta realidad cambiante desde una actitud pasiva, como meros espectadores.

Gaur egungo egoeran, politika publikoek bizi dugun momentuaren interpretazio egokiaren emaitza izan behar dute gero eta gehiago, eta etorkizunari buruzko hausnarketaren ondorioa. Horrek eraman behar gaitu datozkigun erronken emaitzak planteatzera eta gauzak egiteko modu berriak aztertzera.

En el entorno actual, las políticas públicas cada vez más deben ser fruto de una interpretación del momento que vivimos, y consecuencia de una reflexión sobre el futuro, lo que debe llevar a plantearse tanto las respuestas a los retos que vienen, como analizar nuevos modos de hacer las cosas.

Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak inpaktu horiei erantzun nahi die, etorkizunean gertatuko diren beste batzuei aurrea hartu, eta bere praktikak aldaketaren erritmo azkarrak proposatzen dizkigun erronketara egokitu, lankidetzazko gobernantza ireki baten bidez.

En este sentido, la Diputación Foral de Gipuzkoa se propone responder a tales impactos, anticiparse a otros que en el futuro se producirán y adaptar sus prácticas a los desafíos que el ritmo acelerado del cambio nos va proponiendo, mediante una gobernanza colaborativa y abierta.

Nazioartean ez dago oraindik formularik etorkizun ezezagunari erantzuteko beharrezkoa den gobernantzari dagokionez. Garbi dagoena da hurbilketa eta teknika tradizionalek ez dutela balio erritmo bizian aldatzen den testuinguru gero eta konplexuago batean.

En el concierto internacional no existe aún una fórmula respecto a la gobernanza que se precisa para responder a los inciertos futuros. Lo que es evidente es que las aproximaciones y técnicas tradicionales no sirven en un contexto de creciente complejidad y cambio acelerado.

Bilaketa horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia 2016az geroztik lanean ari da Etorkizuna Eraikiz jarduera-eredu gisa, Foru Erakundeak herritarren eta gizarte-eragileen parte-hartzea eta lankidetza ahalbidetzeko eta gauzatzeko hartutako konpromiso instituzionalean oinarrituta agenda publikoaren hausnarketa eta lantze estrategikoan.

En esta búsqueda, la Diputación Foral de Gipuzkoa lleva desde 2016 trabajando en Etorkizuna Eraikiz como modelo de actuación, basado en el compromiso institucional adquirido por la Institución Foral para hacer posible y operativa la participación y la cooperación tanto de la ciudadanía como de distintos actores sociales en la reflexión y elaboración estratégica de la agenda pública.

Horretarako, Etorkizuna Eraikiz ekimenak entzuteko, eztabaidatzeko eta esperimentatzeko askotariko espazioak sortzen ditu, eta horrek guztiak adierazpen bat izateko borondatea du, lehenik eta behin, agenda publikoan, bigarrenik, politika publikoetan eta,

Para ello Etorkizuna Eraikiz genera espacios diversos de escucha, deliberación y experimentación, con la voluntad de que todo ello tenga una expresión, en primer lugar, en la agenda pública, en segundo lugar en las políticas públicas y, en tercer lugar en la capacidad

hirugarrenik, lurraldearen etorkizuneko erronkei eta erronka estrategikoei erantzuteko gaitasun kolektiboan.

colectiva de respuesta a los retos futuros y estratégicos del territorio.

Proposatzen den gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren eredua garatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak bete behar duen baldintzetako bat da ikaskuntzarako eta berrikuntzarako gune irekiak sortzea, pertsonak eta erakundeak elkarreraginean aritzeko, elkarlanean aritzeko eta, azken batean, elkarrekin lan egiteko lekuak ahalbidetzea, erronkei aurre eginez, proposamenak sortuz, edo agenda publikoaren arazoei irtenbideak bilatuz. Beraz, ez da leku bakar bat, truke edo deliberazio egoerak ahalbidetzen dituzten leku fisiko edo birtualen batura baizik.

Uno de los requisitos que la Diputación Foral de Gipuzkoa debe satisfacer para desarrollar el modelo de gobernanza abierta y colaborativa que se propone, es la creación de espacios abiertos de aprendizaje e innovación, propiciar lugares en los que personas y organizaciones diferentes interactúan, colaboran y en definitiva trabajan conjuntamente afrontando retos, generando propuestas, o buscando soluciones a los problemas de la agenda pública. No se trata por lo tanto de un solo lugar, sino de la suma de lugares físicos o virtuales que posibilitan situaciones de intercambio o deliberación.

Etorkizuna Eraikiz eredua, funtsean, bi gune handitan oinarritzen da -Gipuzkoa Taldean eta Gipuzkoa Lab-; horietan, lurraldeko eragileen sareak modu partekatuan eta ez hierarkikoan garatzen ditu deliberazio, proposamen eta esperimentazio jarduerak. Jarduera horiek Gipuzkoako agenda publikoan zentratzen dira, eta, berariaz, lurraldearen etorkizuneko erronkei heltzen diete, horiek identifikatu, aztertu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoen bidez ezar daitezkeen irtenbideak planteatzen saiatzeko.

El modelo Etorkizuna Eraikiz se apoya, básicamente, en dos grandes espacios -Gipuzkoa Taldean y Gipuzkoa Lab- en los que la red de agentes del territorio desarrolla de forma compartida y no jerárquica actividades de deliberación, proposición y experimentación. Estas actividades están centradas en la agenda pública de Gipuzkoa y, de forma específica, en abordar los retos futuros del territorio para identificarlos, analizarlos y tratar de plantear soluciones que puedan implementarse a través de las políticas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2016ko maiatzean proiektua abian jarri zenetik, Etorkizuna Eraikiz programaren inguruan, hausnarketa-ariketa kolektibo bat antolatu da, ideiak bateratu eta konponbideak proposatu dira, eta 1.500 enpresa, elkarte, ezagutza-eragile eta mota guztietako entitatek baino gehiagok parte hartu dute; era batera edo bestera, 68.800 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute proiektuan.

Desde que el proyecto se activó en mayo de 2016, en torno a Etorkizuna Eraikiz, se ha articulado un ejercicio colectivo de reflexión, puesta en común de ideas y propuestas de soluciones en el que se han implicado más de 1.500 empresas, asociaciones, agentes de conocimiento y entidades de todo tipo, y de una u otra manera han participado en el proyecto más de 68.800 personas.

Ikuspegi kuantitatibotik, Etorkizuna Eraikizek 11 estrategia eta erreferentzia-zentro artikulatzea eta abian jartzea lortu du lurraldearen etorkizunerako berebiziko garrantzia duten sektore edo lan-eremuetan, hala nola mugikortasun berrian, klima-aldaketaren aurkako borrokan edo aipatutako biztanleriaren zahartzean. Horiekin batera, Etorkizuna Eraikizek 46 proiektu esperimental aktibo mantentzen ditu. Proiektu horietan era guztietako eragileek parte hartzen dute, eta haien helburua da benetako inguruneetan gai konplexuetarako konponbideak probatzea, hala nola adinekoei arreta emateko eredu berriak, edo kontziliazioa edo belaunaldien arteko harremana bezalako gaien inguruan esperimentatzea. Gizarte antolatuak, bestalde, urtero jasotzen du bere proposamen berritzaile eta esperimentalak modu askean aurkezteko gonbidapena, etorkizuneko gaiei aurre egiteko, eta, orain arte, Etorkizuna Eraikiz programak esperientzia horietatik 150 finantzatzen lagundu du.

Desde un punto de vista cuantitativo, Etorkizuna Eraikiz ha conseguido articular y poner en marcha 11 estrategias y centros de referencia en sectores o ámbitos de trabajo considerados como de capital importancia para el futuro del territorio, como pueden ser la nueva movilidad, la lucha contra el cambio climático o el mencionado envejecimiento poblacional. Junto a ellos, Etorkizuna Eraikiz mantiene activos 46 proyectos experimentales, en los que están implicados agentes de todo tipo y tienen como fin probar en entornos reales diferentes soluciones para cuestiones complejas, como pueden ser los nuevos modelos de atención a las personas mayores o experimentar en torno a cuestiones como la conciliación o la relación entre generaciones. La sociedad organizada, por su parte, recibe cada año la invitación a presentar, de un modo libre, sus propuestas innovadoras y experimentales para hacer frente a cuestiones de futuro y, hasta la fecha, Etorkizuna Eraikiz ha contribuido a financiar 150 de estas experiencias.

Era berean, herritarrek parte hartzeko zuzeneko bideak ireki dira: herritarren batzarrak, ELGErekin lankidetzan egiten ari garenak. Administrazio publikoak antolatutako deliberazio-demokraziako prozesu esperimentalak dira, eta horietan zozketa bidez hautatutako herritarrek parte hartzen dute.

Asimismo, se han abierto canales directos de participación para la ciudadanía: las asambleas ciudadanas, que estamos llevando a cabo en colaboración con la OCDE. Se trata de procesos experimentales de democracia deliberativa organizados por la administración pública y en los que participan ciudadanos y ciudadanos elegidos por sorteo.

Hala ere, Etorkizuna Eraikiz programaren proiektuen parte-hartzeak eta maila handiak ez dute tokiko eta nazioarteko aintzatespen handirik ekarri. Hori, neurri batean, ekimenaren presentzia eta online komunikazioa hobetzearen eta markaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko elkartze ahularen ondorio izan daiteke.

El éxito de participación y el alto nivel de los proyectos de Etorkizuna Eraikiz no ha supuesto, sin embargo, un amplio reconocimiento local e internacional. Esto, en parte, se puede deber a una mejorable presencia y comunicación online de la iniciativa y a una débil asociación de la marca con la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Horretarako, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren proiekzio handiagoa lortzeko eta marka hori Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lotzeko, beharrezkotzat jotzen da Etorkizuna Eraikiz ereduaren komunikazio digitalaren eta sareen aholkularitza zerbitzuak kontratatzea.

A estos efectos, con el objetivo de lograr una mayor proyección de la iniciativa Etorkizuna Eraikiz y que esta marca sea asociada con la Diputación Foral de Gipuzkoa, se considera necesaria la contratación de los servicios de consultoría de comunicación digital y de redes del modelo Etorkizuna Eraikiz.

II.- Xedea

Kontratazio honen helburua da komunikazio digitalaren eta sare sozialetako aholkularitza zerbitzua eskaintzea, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren eta 2024-2027 Plan Estrategikoaren komunikazioa optimizatzeko.

II.- Objeto

El objeto de esta contratación es ofrecer el servicio de consultoría de comunicación digital y de redes sociales, con el objetivo de optimizar la comunicación de la iniciativa Etorkizuna Eraikiz y el Plan Estratégico 2024-2027.

III.- Helburuak

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren radarra hobetzea, komunikazioaren eta politika publikoen arloko azken berrikuntzen eta joeren berri izateko.

III.- Objetivos

- Mejorar el radar de la Diputación Foral de Gipuzkoa para estar al corriente de las últimas innovaciones y tendencias en materia de comunicación y políticas públicas.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren komunikazio digitala hobetzea, entzute aktiborako eta herritarrekiko interakziorako, gizartearekin etengabeko elkarrizketa sustatuz.

- Mejorar la comunicación digital de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la escucha activa y la interacción con la ciudadanía, fomentando un diálogo constante con la sociedad.

-Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Etorkizuna Eraikizen eta erakundeetako ordezkarien sare sozialetako komunikazioa etengabe aztertzeko eta ebaluatzeko sistema garatzea.

- Desarrollar un sistema de análisis y evaluación constante de la comunicación en redes sociales, de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de Etorkizuna Eraikiz, así como de los diferentes representantes institucionales.

- 2024-2027 aldirako Plan Estrategikoaren esparru estrategikoa eta lehentasunezko ildoak Gipuzkoako herritarren artean kokatzen laguntzea.

- Contribuir a posicionar el marco estratégico y las líneas prioritarias del Plan estratégico 2024-2027 entre la ciudadanía guipuzcoana.

- Etorkizuna Eraikiz ekimenaren komunikazioa optimizatzea, estatuan eta nazioartean duen ospea eta posizionamendua hobetzeko.

- Optimizar la comunicación de la iniciativa Etorkizuna Eraikiz para mejorar su notoriedad y posicionamiento a nivel estatal e internacional.

- Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoako berrikuntzari, etorkizunari eta joera berriei buruzko elkarrizketaren buru izaten lortzen laguntzea.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Etorkizuna Eraikizen talde teknikoak eta operatiboak prestatzen laguntzea.

IV.- Ikuspegi metodologikoa eta planifikazioa

Kontratazioaren xede diren aholkularitza-lanek, gutxienez, proposatutako ildoen diseinua, kudeaketa, emaitzak eta inpaktuak jaso beharko dituzte.

Proposamenak jaso beharko ditu planifikazioaren faseak, gauzatzearen kronograma eta txostenaren amaierako edukia.

Ebaluazioan, positiboki baloratuko da erakundea, haren proiektuak eta nazioarteko esperientzia ezagutzea. Era berean, kontuan hartuko dira alderdi pedagogikoa eta postulatzaileen eta ospe handiko erakunde akademikoen arteko harremana, bai eta horiek prestakuntza eta ezagutza emateko duten gaitasuna ere.

Diseinu eta jarduera guztiak planteamendu elebidun batekin egin behar dira, euskaraz eta gaztelaniaz; dena dela, kasu jakin batzuetan, egokia izan daiteke euskarari lehentasuna ematea, planteatutako ekintzaren ezaugarrien arabera eta herritarren segmentuaren arabera.

Era berean, adjudikaziodunak bermatuko du ekintzetan ez dela erabiliko hizkuntza sexistarik, eta irudien trataera ere ez dela estereotipatua izango.

Azkenik, lortutako emaitzei dagokienez, informazioa sexuen arabera bananduta aurkeztu beharko da, eta generoaren ikuspegitik aztertu beharko dira identifikatu diren desberdintasunak, baldin eta halakorik antzeman bada.

- Contribuir a lograr que Etorkizuna Eraikiz lidere la conversación sobre innovación, futuro y nuevas tendencias en Gipuzkoa.

- Contribuir a la formación de los equipos técnicos y operativos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y Etorkizuna Eraikiz.

IV.- Enfoque metodológico y planificación

Los trabajos de consultoría objeto de contratación deberán contemplar, como mínimo, el diseño, la gestión, los resultados y los impactos de las líneas propuestas.

La propuesta deberá incluir las fases de la planificación, el cronograma de realización y el contenido final del informe.

En la evaluación se valorarán positivamente el conocimiento de la institución, de sus proyectos y la experiencia internacional. De igual manera, se tomará en cuenta la dimensión pedagógica y la relación de los postulantes con instituciones académicas de reconocido prestigio y su capacidad para formar e impartir conocimiento.

Todos los diseños y actividades deben llevarse a cabo con un planteamiento bilingüe, en euskera y castellano, salvo en casos concretos en que se considere conveniente un uso prioritario del euskera en función de las características de la acción que se plantee y del segmento de ciudadanía al que se dirija.

Asimismo, el adjudicatario garantizará que en todas las acciones se haga un uso no sexista del lenguaje y un tratamiento no estereotipado de las imágenes.

Finalmente, en relación con los resultados obtenidos, habrá que presentar la información desagregada por sexo, analizando desde la perspectiva de género las posibles desigualdades que se hayan podido identificar.

Donostia, 2024ko martxoaren 1a
San Sebastian, 1 de marzo de 2024
Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaria
El secretario del Área de la Diputada General

Sin. / Fdo.: Juan José de Pedro

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Diputatu Nagusiaren Alorra
Área de la Diputada General

